

5. Eranskina

LAU PERTSONAIAK ETA HAUEN EZAUGARRIAK

<u>PERTSONAIAK</u>	<u>EZAUGARRIAK</u>
Mikel	<ul style="list-style-type: none">• Futbola eta ballet-a praktikatzen du• Etorkina eta beltzarana da
Winnie	<ul style="list-style-type: none">• Gaur egun, modeloa• Txikitan, makulak atera zitzaizkion
Markel	<ul style="list-style-type: none">• Betaurrekoak ditu eta irakurtzea asko gustatzen zaio• Amarekin bakarrik bizi da
Amale	<ul style="list-style-type: none">• Ilegorria eta oso lotsatia da.• Saski baloira jolastea asko gustatzen zaio.

1. taula. Pertsonaiak eta hauen ezaugarriak

Asmatu diren pertsonaiak sortzerakoan, hauen sentimenduak, fisikoa, *hobbiak*... islatu nahi izan dira. Batzuetan, muturretako ezaugarriak aipatzen dira, adibidez, futbolera jolasten eta aldi berean, ballet-a praktikatzen duen ume baten (mutila den) egoera deskribatzen da. Ekintza horiek praktikatzea muturrekotzat hartzen da, azken finean gure errealitatean ikustera ohituta ez gauden egoera bat delako. Era honetan, ikasleentzat deigarria izango da eta gizartean, zoritzarrez hain inposatuta dauden irudi publikoak edo genero ekintzen bazterketa bultzatuko da.

Benetan existitzen den pertsonai horren inguruko deskribapena egiterakoan, bere biografia kontuan izan da, gauzak moldatuz edo zerbait asmatuz, baina betiere, bere fisikoa eta izaera oinarritzat izanda. Aukeratutako pertsonaia, “*Desigual*” arropa-markako modeloa da, ondorioz, ikasleek telebistan, iragarkietan, aldizkarietan... ikusteko aukera izango dute, haiengan nolabaiteko motibazioa eta interesa piztuz. Izan ere, klasean landutako pertsonaia izango da, haien bere bizitza, egoera, sentimenduak, pentsamenduak... landu egin dituztelako.

Betaurrekoak dituen pertsonaia sortu egin da, askotan, betaurrekoak dituzten pertsonen, besteengandik irainak jaso egiten dituztelako, batez ere gazteak direnean. Horretaz gain, gaur egungo neska mutil askok bideojokoetara jolasten denbora handia ematen dutela

kontuan izanda, sortutako pertsonai honi irakurtzea asko gustatzen zaio. Era honetan, ikasleek, irakurtzea beste “*hobby*” bat izan daitekeela ikusi ahal izango dute. Ondorioz, bakoitzak gustu desberdinak dituenek, horiek errespetatu behar dela adierazi egingo zaie. Honekin batera, pertsonai hau, bere amarekin bakarrik bizi dela adieraziko da, izan ere, gaur egun, familia egitura desberdinak aurkitzen dira eta ondorioz, arruntena (ama, aita eta seme-alabak) alde batera utzi nahi izan da, ikasleek, norbera bere familia mota duela eta besteena bezain garrantzitsua eta sendoa izan daitekeela ikusteko aukera izango dute.

Azkenik, azkeneko pertsonaiari dagokionez, ilegorriaren ezaugarria atxikitu zaio. Izan ere, orokorrean, ikasleek ilehoria, marroia edo beltza izaten dute, hau da, ilegorria izatea ez da ohikoena. Hori dela eta, kolore horretako ilea izatea eman daitekeen beste egoera bat dela eta horregatik ez dela ezer ere gertatzen ikusiko dute, gainerakoen errespetua bultzatuz.